

GIPUZKOAKO CARITAS, DSBL-ren ERREFORMAREN AURREAN

“Caritas Gipuzkoak pertsoneri harrera egin, lagundu eta pertsona horiek sustatuko dituen gizarte-eredu baten aldeko apustua egiten du; bereziki, premia handieneko pertsoneri dagokienez. Frantzisko Aita Santuak “bazterkinen kultura” aipatzen du maiz, eta gogorarazten digu ahulenak zaindu behar ditugula.”

1.- Caritasek betidanik egin izan du **babes sozialeko sistema indartzearen** alde. Izan ere, gure ustez, sistema horrek bizirik irauteko oinarritzko premiei erantzuten die, eta, gainera, gizarte-inpaktu positiboa dauka, herritarren arteko desberdintasunak apaltzen dituelako eta gizarte-kohesioari laguntzen diolako.

Alde horretatik, guk onuragarritzat jotzen ditugu babes sozialeko sistema indartzen edo laguntzen duten tresna guztiak. Bestalde, kaltegarritzat jotzen dugu mugak, murrizketak edo ezeztatzeak dakartzan guztia.

Bere garaian ere esan genuen ez geundela ados **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) aldaketekin:** errenta emateko, errola-aldia urtebetetik 3 urtera aldatu zuten. Orduz geroztik gogora ekarri dugu hori, eta behin baino gehiagotan eskatu dugu erreformaren aurreko egoerara itzultzeko.

Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza (DSBL) arautzen duen ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretuaren arabera, laguntza horren helburua da Diru-sarrerak Bermatzeko Sistematik kanpo dauden gizarteko pertsona eta familiek behar duten babes ekonomiko horri erantzutea.

DSBLren Dekretuak berak adierazten du zenbait pertsona eta bizikidetz-unitate babesik gabeko premia-egoeran daudela, ez dituztelako betetzen diru-sarrerak bermatzeko sistemara sartzeko baldintzak.

Horri dagokionez, eta erakundearen jarrerarekin bat eginik, ontzat jo dugu DSBL sortu izana. Izan ere, alde batetik, babes sozialeko sistemarako laguntza bat gehiago da, eta, bestetik, babes sozialeko sistemako beste laguntzak (DSBE, 2011ko azaroan egindako erreformaren ostean) eskuratu ezin dituzten pertsona eta familiak dira hartzaileak.

2.- Hori horrela, Caritasen ustez, babes sozialeko sistemako laguntzek helburu dute **pertsonak gizarteratzea eta gizarte-bazterketako arrisku-egoerak saihestea.**

Horregatik, gure iritziz behar-beharrezkoa da elkarrekin lotzea laguntza horiek eta gizarteratze-**hitzarmenak** (Diru-sarrerak Bermatzeko Legeak ezartzen duen bezala) edo Arreta Pertsonalizatuko **Planak** edo ekintza-**konpromisoak** (DSBLren Dekretuak aurreikusten duen moduan).

Halaber, funtsezkoa deritzogu egoera horien gaineko **jarraipena egiteari**, eta laguntzak hartutako konpromisoen arabera **mantendu eta berritzeari**. DSBLren Dekretuak hori guztia jasotzen du; hain zuzen ere, ezartzen du jarraipena ezinbestekoa dela eta hartutako konpromisoak bete egin behar direla laguntzak mantendu eta berritzeko.

Gure ustez, diru-laguntzek **bat etorri behar dute** onuradunek planetan, gizarteratze-hitzarmenetan edo ekintza-konpromisoetan duten partaidetzarekin, eta pertsonen egoerari erreparatu behar zaio. Era berean, **jarraipena** egin behar da ekintza horiek guztiak gauzatu daitezen.

3.- Gipuzkoako Caritas ez dago ados pertsona eta familia ugari **pobreziatik babesten dituzten laguntzak kentzearekin**. Izan ere, laguntza bat behar dute eguneroko bizimodua guk bezalaxe eraman dezaten.

Badakigu agian DSBL berrikusi egin beharko litzatekeela eta ikuspegiak, metodologiak edota hartzaileak aldatu beharko liratekeela. Berrikuspen horrek, baina, ez luke ekarri beharko laguntza hori behin betiko desagertzea.